

Buddleja davidii. BUDLEJA

Buddleja davidii: identifikazioa



Zuhaixka erdi-hostogalkorra da eta 4-5 m-raino irits daiteke. Lantza itxurako hostoak ditu, hauek 20 cm-raino irits daitezke eta zurixkak edo zilar-kolorekoak dira azpialdean. Loreak purpura kolorekoak dira eta 35 cm-raino irits daitezkeen infloreszentzietan biltzen dira. Ekainetik azarora bitartean loratzen da. Hiru urte eta erdi arte bizigaiak diren hazi ugari ekoizten ditu.



Gure eskualdean urertz eraldatuak, errepideen eta trenbideen ezpondak, eta abar azkar inbaditzen ditu. Haziaren bidez ugaltzen da eta anduitik edo sustraietatik ernaberritzen da landarea mozten bada edo izoztearen ondorioz hiltzen bada. Aldaxken bidez ere ugaltzen da.

Buddleja davidii: jatorria eta kokapena

Jatorriz Txinakoa da. Lorezaintzan erabili ohi da eta Europan, Amerikan eta Ozeanian bertakotu egin da. Kantauriar isurialdean oso ugaria da, batez ere hirietan, herrietan, industria-guneetan, garraio-azpiegituretan eta urertz narriatuetan.

Buddleja davidii: arriskugarritasuna, eragina eta egoera

Ezaugarri inbaditzaileak dituen espezie oportunistak. Ugalketa sexual nahiz asexual eraginkorra du. Landaredi naturala mugatzen duten masa monoespezifikokoak eratzeko gai da denbora laburrean. 630/2013 EDan aipatzen da.

Buddleja davidii: kontrol eta kudeaketa metodoak

Budleja **desagerraraztea oso zaila da**. Espeziea kontrolatzeko teknikak honako hauek dira:

- Urteroko plantulen erauzketa, eskuz edo tresna arin baten laguntzaz; garrantzitsua da sustrai-sistema osoa ateratzea
- Ale-helduak osoki ebakitzea: horretarako unerik onena udaren amaiera baino lehen da, hazien garapena eta sakabanatzea saihesteko; ernaberritzeak egongo direla aintzat hartuta, kimu gazteak garaiz kendu beharko dira ondoko urteetan, hazi-bankua eta sustrai-sistema agortu arte
- Urertzetik kanpo dauden eremu lauetan, aleak ertz zorrotzak utzi gabe moztu behar dira, ondoren, **material opaku gogorrez estali** (sustraien ernaberritzea eragozteko), 50 cm-ko landare-lur geruza bat ezarri eta, azkenik, bertako espezieak erein eta landatu behar dira

Landare honen hondarrak balorizazio energetikoaz arduratzen den zentro batera behar den bezala estalirik eraman behar dira. Erabilitako materiala eta ibilgailuak ere artoski garbitu behar dira.